


Kitto!


EIBARKO EMAITZAK
2015 - XII - 20



ESPAINIAKO
KONGRESU ETA
SENATURAKO
HAUTESKUNDEAK



Aurrekoetan baino boto gehiago zenbatu behar izan zituzten atzoko hauteskondeetan.



Jendea botatzeko gogoz Eibarren: maiatzean baino zortzi puntu gehiago

Ahal Dugu nagusi Eibarren, EAJ-PNV eta PSE-EEren aurretik

ATZOKOA EZ ZEN HAUTESKUNDE EGUN NORMALENETAKOA IZAN GU-REAN. Hasteko, gutxitan izaten den jende kopurua gerturatu zen hauteskontzietara euren botoa ematera: aurten bertan, maiatzeko Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskondeetan parte-hartzea %62,27an geratu zen (%37,73ko abstentzioa) eta atzo %70,36k eman zuen botoa, abstentzioa %30era iritsi barik. Gainera, urte bereko bigarren hauteskundeak ziren atzokoak eta, hori gutxi balitz, Espainiako gobernuak aukeratzeko balio du-

tenak, maiatzekoak askoz ere gertukoagoak zirenean, hau da, Eibarko Udalerako alkate eta zingotziak jokoan zeudela.

SENATUA

Gipuzkoa: EAJ-PNV (3), Ahal Dugu (1)

Bizkaia: EAJ-PNV (3), Ahal Dugu (1)

Araba: Ahal Dugu (3), PP (1)

Nafarroa: UPN-PP (3) Aldaketa (1)

KONGRESUA

Gipuzkoa: Ahal Dugu (2), EAJ-PNV (2), EH-Bildu (1), PSE-EE (1)

Bizkaia: EAJ-PNV (3), Ahal Dugu (2), PSE-EE (1), EH-Bildu (1), PP (1)

Araba: Ahal Dugu (1), PP (1), EAJ-PNV (1), PSE-EE (1)

Nafarroa: UPN-PP (2), Ahal Dugu (2), PSN (1)

Emaitzei begira ere badago gauza berririk, ia inoiz gertatu gabekoa suertatu baita oraingoan: PSE-EE gurean hirugarren indar geratu da, Ahal Dugu - Podemos eta EAJ-PNVren atzetik. Sozialistek ez dute askorik galdu orain dela lau urteko emaitzekin konparatuta (600 boto inguru), baina bai aurtengo maiatzekoekin alderatuta (2.500 boto). EAJ-PNVk maiatzetik hona 500 boto irabazi ditu. EH-Bilduk ere galera handia izan du, batez ere orain dela lau urte Amaiur izenarekin lortutako boto kopuruaren ondoan: 1.700 botok egin die ihes. Maiatzeko hauteskondeetan ere orain baino 834 boto gehiago atera zituen ezker abertzaleak. PP ere orain dela lau urte lortutako emaitzetik urruti geratu da, 700 boto gutxiagorekin, baina maiatzetik hona behintzat 780 boto irabazi ditu. Eta Orain Batera - Unidad Popularrek orduko Ezker Batuak baino 90 boto gutxiago jaso ditu. Ciudadanos-ek 416 boto lortu zituen atzo Eibarren eta UPyD-k 31. Irabazlea, argi dago, Ahal Dugu - Podemos izan da, garaile herriko ia hauteskunde kolegio guztietan. Lau bototik bat kolore morearentzat izan da Eibarren alderdiaren estreinaldian.

bista eder
clinica dental - hortz klinika

Asko dira
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

bista eder
clinica dental - hortz klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 Eibar / Tel: 943 70 00 82

innovadental [Arpeitia]
clinica dental - hortz klinika

José de Artetxe, 5
20730 Arpeitia / Tel: 943 02 59 55

www.innovadentalclinicas.com

20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT
20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko arreta jaso dezazun

BOTUA EMOTERAKUAN

1.- Zelan ikusi dozu KANPAINA? 2.- Zelan EMAITZAK espero ditzuzue?



JULEN BOLLAIN (Ahal Dugu - Podemos)

2.- Emaitza oso onak espero ditudut, jendia oso sartuta ikusi dot eta abstentziño gitxiago egongo da. Ez gara konformatzen bigarren postuarekin, garaipenaren bila goiaz eta gitxienez Bildurekin parekatuta egotia espero dogu.



1.- Kanpaina oso polita egin dogu, Euskal Herrixan 100 ekitaldittik gora egin ditudugu, Espainia maillan pabilloi guztiak bete ditudugu, Eibarren be 60 lagun batu genituen... Ambiente polita eta jendia esperantzarekin, hau aldatzeko ilusiñuarekin ikusi dot.



JOSU MENDIKUTE (EAJ-PNV)

2.- Gaur gabian Espainiako telebistetan estatuko mapa lau kolorez, gorritz, urdiñez, morez eta laranja margotzen hasten diranian, Euskadi barrira be beste kolore batez margotuta egotia; hori da guri inporta jakun emaitza.



1.- Oinguan telebistan asko oiñarritutako kanpaina izan dogu eta Euskadiz zeharo ahaztu dira. Horren aurrir gu kanpaina osua kalia, herritarrengandik gertu egitten ahalegindu gara, azaltzen ez dogula aukeratzin Espainiako gobernu zain izango dan, baizik eta gure ordekaritza Madrillan zain izango dan. Kanpaina zaila baiña polita izan da, gure herriko jendearekin aurrez aurre egoteko aukera hori izan dogulako.



MIGUEL DE LOS TOYOS (PSE-EE)

2.- Inkesten arabera, gehiengo absolutua lortuko daben alderdirik ez dago eta, agindu ahal izateko, hitzarmenak egin biharko dira nahitaez. Gauzak holan, sozialistak hitzarmen horietarako nahikua indar izatia espero dot.



1.- Oinguan kanpaina berezixa izan dala uste dot, komunikabiak pisu haundixa izan dabe, beste batzuetan baiño gehixago; emoten dau alderdi bik biharrian, gaurkuan lauk izango dituduela emaitza garrantzitsuak. Guk, betiko moduan, kanpaina gertukua egitten ahalegindu gara, mezu orokorrak helarazten. Rajoiri Pontevedran gertatutakua alde batera lagata, kanpaina lasaixan izan dala uste dot.



IGONE LAMARAIN (EH-Bildu)

2.- Euskal Herrixan aldaketa sozialaren alde egitten dogunon igoeria egotia espero dot, horrek mesede egin ahal deskulako etorkizunian.



1.- Jendia ilusiñuarekin ikusi dot, askok Espainia maillan indar aldaketa gertatu leikiela eta Euskal Herritik aldaketa hori emoten lagundu leikegula pentsatzen dabelako. Euskal Herrirako egin behar dogu, baiña Madrillera juanda gure ahotsa entzunaraztera. Komunikabiak guri emondako tokixa hutsaren hurrengua izaten da askotan, baiña neri herririk herri ibiltzia tokau jata eta jendia berotasuna somatu dot.



JAVIER NUNEZ (PP)

2.- Espainiako herritarren konfiantzia izatia espero dogu. Alderdi popularrak botu gehixen jasotzia eta beste lau urtez agintzen jarraitzia espero dot, holan susperraldiarekin segitzeko.



1.- Intensidade haundikoa eta ezbaridna izan da; indar politikobarririk agertu dira eta irudixaren kanpaina sartu gara, komunikabiak eta debate publikuen bittartez jendia engana aillegatzia billatu dalako. Aurrerantzian be kanpaina egitteko orduan joera hori nagusittuko dala uste dot. Kanpaina garbixa izan da eta baktak bere programa azaldu dau.



ITOITZ GARCIA-ANTON (Orain Batera)

2.- PP izango da nagusi eta, %5eko aldiarekin, PSOE, Podemos eta Ciudadanos egongo dira, orden horretan. Guk talde parlamentariuxa etarako dogu, Kataluñan eta Galizian gure botuak kontuan izango ez dituden arren.



1.- Ezker Batuari ikaragarritzko zentsura egin jago: Ciudadanos eta Podemos izan dira lauko debatiak eta Alberto Garzon, barriz, millo bat botorekin kanpuan. Atzo bertan La Sexta Noche albo batera laga zeban erreflexiorako egunaren kontzeptua eta La Sexta patrozintzen daben horren alde egitten jarraitu dau. Gu gara kapitalaren benetako etsaia, Kutxabank eta bestientzat deserosuak garalako.

EMAN CONSULTING, S.L.
 APARTA, BERRIA, PRAKTIKOA eta GAURKOA
 emansl@emansl.es

- **AHOLKULARITZA ETA CONSULTING:**
 - Laborala - Fiskala - Kontablea - Juridikoa
- **GIZA ERREKURTSOAK:** - Enpresako komenio eta hitzarmenak
- **PERTSONALAREN AUKERAKETA**

J. Etxeberria, 5 943 200 336 / 943 200 069 Fax: 943 200 342 **EIBAR**
 Marqués de Valdespina, 10 943 170 054 Fax: 943 176 901 **ERMUA**



MAILAK TRUST. S.L.
 TRANSAKZIO INMOBILIARIOAK
 KOMUNITATEEN GESTIOA

- ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA
- ALOKAIURUAK
- BALORAZIOAK
- SUBENTZIOAK
- BANKU KREDITUAK
- TRASPASOAK
- PERITAJEAK
- KREDITU OFIZIALAK

J. Etxeberria, 5 (**EIBAR**) 943 200 336 / 943 208 778 Fax: 943 200 342
 Marqués de Valdespina, 10 (**ERMUA**) 943 170 451 Fax: 943 176 901

HAUTESKUNDE EGOITZETAKO BOTUAK A U Z O R I K - A U Z O

	Ahal Dugu	EAJ-PNV	PSE-EE	EH-Bildu	PP	Orain Batera
Amaña	385 (%27)	143 (%10)	488 (%35)	114 (%8)	167 (%12)	49 (%3)
Ipurua	474 (%26)	351 (%19)	398 (%22)	331 (%18)	140 (%8)	59 (%3)
Coliseoa	388 (%23)	464 (%28)	254 (%15)	293 (%17)	139 (%8)	46 (%3)
Gerontologikoa	121 (%21)	78 (%14)	161 (%29)	87 (%15)	70 (%12)	21 (%4)
San Andres	615 (%25)	661 (%27)	353 (%15)	432 (%18)	178 (%7)	79 (%3)
Udaletxea	654 (%22)	793 (%27)	493 (%17)	532 (%18)	229 (%8)	78 (%3)
Urki	451 (%28)	227 (%14)	441 (%27)	199 (%12)	159 (%10)	50 (%3)
Urkizu	645 (%24)	610 (%23)	556 (%21)	388 (%14)	248 (%9)	87 (%3)
Guztira	3.733 (%25)	3.327 (%22)	3.144 (%21)	2.376 (%16)	1.330 (%9)	469 (%3)

ZENTSOA:
21.515

BOTO-EMAILEAK:
15.137

PARTE-HARTZEA:
%70,36

ABSTENTZIOA:
%29,64



ARGITARATZAILEA:
"...eta kittto!" Euskara Elkarteak.
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar.
Telefonoak: 943-206776 / 943-200918.
www.etakitto.eus

BABESLEA:
Eibarko Udala

ADMINISTRATZIOA:
Marisol Uriarte

LAN TALDEA:
Ana Aizpuru, Maider Aranberri,
Juanan Argoitia, Iñintza Fernandez,
Julian Fernandez, Silbia Hernandez,
Ainara Labado, Ainhoa Luz,
Ainara Riveras

KOLABORATZAILEA:
Eneko Astigarraga

ARGAZKIAK:
Maialen Belaustegi, Silbia Hernandez

DISEINUA / MAKETAZIOA:
Jose Luis Gorostegi

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu, Belen Ulazia

TIRADA:
6.000 ale

BANAKETA:
Ane Lizarralde

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:
"...eta kittto!"

LEGE-GORDAILUA:
SS/430/92

ISSN:
1132-1679

"...eta kittto!"-k ez du bere gain hartzen ale honetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ENEKO ASTIGARRAGA
(soziologoa)

Kolaborazioa

Kolore morea hauteskunde mapa berrietarako

URTE BUKAERAKO HAUTESKUNDE HAUTARAKO BOTO-EMAILEEN BABESA JASOKO ZUTEN JOKALARI BERRIEN ETA, NEURRI BATEAN BEHINTZAT, EZBERDINEN GARAIA IRAGARRITA ZETORREN.

Aldaketaren zantzuak, alderdi gehiago eta politika "berriaren" etorrera horrek, interes puntua eman die hauteskunderi eta 2011ko hauteskundeetan baino jende gehiago joan da bozkatzera. Baina, ez dirudi eskaintza berriek hiritarrak guztiz konbentzitu dituztenik: berriro ere, populazioaren zati handia ez da hurbildu bere botoa hauteskontzietan lagatzera.

Baina Podemos - Ahal Dugu alderdi berriaren sarrera indartsua izan da. Adibidez, Espainiako Gorteetarako hauteskunde hauetan, Eusko Alderdi Jeltzalearekin nahiko parekatuta, EAEn

eta Nafarroako bozkek gehituta lehen indarra litzateke. Jakin badakigu Gazteizko Legebiltzarerako edo Udal eta Foru hauteskundeak bestelako irakurketa eta eztabaidak sortzen dituztela, baina datua hor dago. Etorkizunari begira oso kontutan hartuko dute, seguruenez, bai EAJ berak, bai Bildu-k zein PSE-EEK.

Alderdi moreak Eibarren izan duen plazaratzea ez da izan hala nolakoa, irabazle garbia izan da partidu morea Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan. Bitxia bada ere, ditugun datuen arabera, Estatuko lau hautes-lurraldetan baino ez da gertatu hau: Bartzelona eta Tarragona Kataluan, eta Gipuzkoa eta Araba, Euskal Herrian. Joera aurrerakoiak ala salbuespenak? Denborak esango digu.

Podemos - Ahal Dugu (3.750), EAJ-PNV

(3.327) eta PSE-EEK (3.138) eta apur bat atzerago EH Bildu (2.376) lehen lau tokietan ageri zaizkigu Eibarko Gorteetarako datuei begiratuta, Senaturako datuak zerbait aldatzen diren arren eta azken hauetan EAJ-PNVko hautagaiak garaile izan Eibarren. Botoen norabidea jakitea zaila bada ere, badirudi Podemos-eko bozkek Bildu eta PSE-tik datozela nagusiki, baina auskalo PP-tik etorritako jendea gehituko ez ote zitzairen.

Edonola ere, ez dago gehiengo nagusia duen alderdirik eta badirudi hemendik aurrera gobernatarako itunak egiteko orduan beste jokalar berriak kontutan hartuko beharko direla. Eta seguruenez, Espainako Gobernu buru izateko hautagaiak, Sanchez, Iglesias, Rajoy,... kontutan izango dute.

SORMENA
LAN TALDEA
WEB GUNEAK
KATALOGOAK
IRUDI KORPORATIBOA
ENPRESAKO BIDEOAK
ERROTULAZIOA
ARGAZKIAK
IRAGARKIAK
PACKAGING-A

25 años de
urte *Comunicación*
komunikazio *Gráfica*
grafikoa *Personalizada*
zure neurria
egiten

EstilGráfico
Desde 1990-etik

Bidebarrieta, 27 B - 20600 EIBAR
Tel. 943 82 13 00
www.estilgrafico.com

www.etakitto.eus



Albisteak

Berbetan

Zorion-agurrak

Argazki-bildumak

Komunitatea

Euskara Zerbitzuak

Iragarki laburrak

Txikitto

Kulturgintza

Kultur Agenda

Ahal Dugu (Julen Bollain)

"Oso pozik gaude Eibarren lehen indarra izatea lortu dugulako, bigarren geratu diren jeltzaleei 400 botoko alde atera diegu. PP eta PSOE oso atzean geratu dira, Euskadin nabarmen jaitsi dira eta Podemosek alde handia kendu die. Euskadin lan egin behar dugu, baina Madrilen ere. Gure diputatuek Euskadiko gaiak milaka botoen babesarekin Kongresuko agendan sartzeko aukera izango dute eta, horrekin batera, autogobernuaren alde egin eta pendiente dauden estatutako transferentziak eskatu"

EAJ-PNV (Eduardo Zubiaurre)

"Balorazio positiboa egiten dugu. Hamaika mahaitan irabazi dugu Eibarren, eta 2. indarra gara herrian. Hauteskunde hauetan egoera berria zen, desberdina. Lehiakide berri indartsuak agertu dira, eta gu kenduta, gainerako alderdiak jaitsi egin dira. Guk, aldiz, eutsi egin diogu indarrari, eta oso pozik gaude. Boto asko Madrilerara begira eman dira, aldaketa baten alde, baina gure kasuan ez da horrela izan, gure boto-emalleek guran konfiantza izaten jarraitzen dutela erakutsi digute-eta"

PSE-EE (Eneko Andueza)

"Eibarren hirugarren indarra izan gara eta maila horretan emaitzak ez dira onak guretzat. Argi dago jendeak Espainiako ikuspegia izan duela kontuan bozka ematerakoan. Podemos-ek sortu duen olatua aprobetxatzen jakin du eta etekina atera dio egoera horri, oso emaitza onak lortuz; dagoeneko zoriondu dugu euren idazkari nagusia. Espainia mailan izan ditugun emaitzekin pozik gaude, baina, hemen, Eibarren lanean jarraitu behar dugu eta egoera honi guztiari aurre egin"

EH-Bildu (Igone Lamarain)


"Ikusita Podemos-ek Eibarren, Gipuzkoan eta Euskal Herrian, orokorrean, irabazi duela, pentsatzen dut jende askok erabili duela botua estatu mailan pentsatzen, jendea aldaketa baten bila dabilelako. Geuk ere barne hausnarketa egin behar dugu: Podemos-en atzetik geratu gara, baina baita EAJ eta PSOEren atzetik ere. EH Bildutik aurrera eraman nahi dugun prozesurako euren atzetik geratzea ez da ona. Agian Podemos-etik etor daitezkeen aldaketa sozialak onak izan daitezke Euskal Herrirako"

PP (Javier Nuñez)

"Eibarko eta Gipuzkoako emaitzak ikusita, balorazio positiboa egiten dugu. Espainian irabazi egin dugu, baina ezin dugu ukatu botu gehiago espero genituela. Eibarren Ahal Dugu izan da alderdi irabazlea, zalantzarik gabe, eta Eibarren nagusi diren indarrek horren azterketa sakona egin behar dute. Maiatzeko udal hauteskundeei begiratzen badiegu, gure emaitzak hobetu egin dira, eta lehengo egoerara bueltatzea espero dugu"

Orain Batera (Itoitz Garcia-Anton)

"Eibarren Ahal Dugu-k botu asko kendu dizkio EH-Bilduri, eta baita PSE-EEri ere. Guk botuen %15a galdu dugu, baina ez da kopuru handia, bi indar berri daude-eta. Beraz, botu fidelak hor jarraitzen du. Dena dela, botu gehiago espero genuen. Kanpainen zentsura mediatikoa izan dugu, eztabaidetatik kanpo laga gaituzte. Bipartidismoak oraindik bizirik dirau, ez da amaitu. Ikusi behar da orain zen gertatzen den, nolako paktoak egiten diren. Gabonetako otorduak oso dibertigarriak izango dira"



KONGRESU BERRIA

Mariano Rajoyren PP izan bada ere alderdi bozkatuena Kongresurako eta Senaturako atzoko hauteskundeetan, oso zail izango du Gobernua osatzea bere 123 eserlekuekin. Pedro Sanchez-en PSOE-k bigarren postuari eutsi dio, oraingoan 90 eserleku bereganatuta, eta Pablo Iglesiasen Podemos indartuta atera da hauteskunde hauetatik, Ganbaran izango dituen 69 eserlekuekin (garrantzitsua izan da bai Katalunian eta baita Euskadin ere lortutako emaitza). Ciudadanos laugarren postuan geratu da, 40 ordezkariarekin Kongresuan. Honako alderdiek osatuko dute Kongresu berria:

PP (123): lehen (186)

PSOE (90): lehen (110)

Podemos (69)

Ciudadanos (40)

ERC (9): lehen (3)

EAJ-PNV (6): lehen (5)

DyL (8): lehen (16)

EH-Bildu (2): lehen (7)

UP-IU (2): lehen (11)

CC (2): lehen (2)

UPyD (5), BNG (2), F. Asturias (1), Equo (1) eta Geroa Bai (1) galdu egin dituzte zituzten ordezkariak.

denolan, s.l.
ENPRESA AHOLKULARITZA

Tfnoa: 943 741800 / Faxes: 943 741760
P. M. Urruzuno, 31 - behea (ELGOIBAR)

Tfnoa. (4 linea): 943 20 16 80
Faxes: 943 20 18 41
E-maila: denolan@denolan.es
Muzategi, 1 (EIBAR)

Siurlan
ASEGURU ARTEKARITZA

Muzategi, 1 (EIBAR)
Tfnoa: 943 20 16 80 Faxes: 943 20 18 41

Larragest

API
353 zbk.

Calbeton, 22-24

INMOBILIARIA
690 610 715

ASEGURUAK
943 200 795